

2. MODULUA: DATUEN TRATAMENDUA KALKULU ORRIETAN

4. gaia: Analisirako tresnak: helburua bilatu, agertokiak, Solver

Leire Aldaz, Begoña Eguía eta Leire Urcola



Gai zerrenda

Sarrera

Helburua bilatu

Agertokiak


Solver

SARRERA

Gaur egun bai erakundeek zein gizabanakoek etengabe informazioa jaso eta erabiltzeko beharra daukate, emaitza egokiak lortuz une bakoitzean erabaki zuzenak hartzen direla ziurtatzeko. Ingurune honetan, analisisirako lanabesek erabakiak hartzen laguntzen dute. Microsoft Excel-ek informazioa era errazagoan aztertzeko aukera ematen duten erabilgarritasun ezberdinak eskaintzen ditu. Lanabes hauek erabilgarriagoak dira hartu beharreko erabakia hainbat faktoreren menpe dagoenean.

HELBURUA BILATU

Aukera hau erabili ohi da hartu beharreko erabakia balio bakar baten menpe dagoenean. Kasu honetan Microsoft Excel-ek balio egokia zein den adieraziko du.





2. Modulua: Datuen Tratamendua Kalkulu Orrietan

4. gaia: Analisisilako tresnak: helburua bilatu, agertokiak, Solver

Derrigorrezko hiru parametro adierazi behar dira:

- *Gelaxka definitu*: gelaxka honetan dagokion balioa nola kalkulatu den adierazten duen formula gorde behar da. Derrigorrezkoa da aldatuko den balioa formularen sartua egotea.
- *Balioarekin*: erabiltzaileak aurreko parametroan lortu nahi duen balioa adierazi behar du.
- *Gelaxka aldatzeko*: erabiltzaileak adieraziriko helburua betetzeko aldatu beharreko balioa gordetzen duen gelaxkaren kokapena adierazi behar du. Microsoft Excel-ek lorturiko emaitza gelaxka honetan bertan erakutsiko du.


Lanabes honen inguruko informazio gehiago Microsoft Access-ek eskaintzen duen online laguntzan topa daiteke:

[Helburua bilatu](#)

AGERTOKIAK

Lanabes honen bitartez erabiltzaileak balio multzo baten aldaketaren inguruan erabaki dezake. Berau erabiliz “eta...balitz” motako analisia burutu daiteke, hau da, zer gertatuko litzatekeen faktore multzo baten balioak aldatuko balira.

Microsoft Excel-ek sorturiko agertokiak gordetzeko aukera ematen du eta gainera egoera ez berdinak konparatu daitezke.





2. Modulua: Datuen Tratamendua Kalkulu Orrietan

4. gaia: Analisilako tresnak: helburua bilatu, agertokiak, Solver

Agertoki bat sortzeko izen bat eman behar zaio. Gelaxka aldakorretan analisisian aintzat hartu beharreko datu multzoa adierazi behar da.

Ondoren Microsoft Excel-ek agertokian erabili behar dituen balioak zeintzuk diren adierazteko eskatuko du.

Label	Value
1: \$C\$5	5000
2: \$D\$5	3000
3: \$E\$5	6000
4: \$F\$5	2500
5: \$G\$5	1000

Agertokia adieraziak izan diren balioekin gordeko da.

Jarraian beste balio batzuk erabiliz beste agertoki bat sortu eta gorde daiteke, horrela erabiltzaileak bi egoerak erkatu eta une bakoitzean erabaki egokia har dezan.

Behin lehen agertokia sortu denean Microsoft Excel-ek Agertoki Administratzailea erakusten du non gorderiko agertokiak ikusi, eraldatu, bateratu etab. egin daitezkeen.

Escenarios:

- e

Celdas cambiantes: \$C\$5:\$G\$7

Comentario:

Lanabes honen inguruko informazio gehiago Microsoft Access-ek eskaintzen duen on line laguntzan topa daiteke:




Agertokiak

SOLVER

‘Solver’ lanabesak optimizazio arazoak ebazteko aukera eskaintzen du, hau da, helburu batzuk lortzeko baldintza edo murrizketa batzuk ezarriz, arazo konplexuak ebazten ditu.

Enpresa erabakiak hartzeko oso lanabes erabilgarria da, erabaki egokia hartzea erraztu eta optimizatzen baitu.

‘Solver’ lanabesaren egitura ondorengoa da:



Erabiltzaileak ondorengo parametroak zehaztu behar ditu:

- *Helburu gelaxka*: bere balioa optimizatu nahi den gelaxkaren erreferentzia gordetzen du.
- *Helburu gelaxkaren balioa*: burutu beharreko eragiketa adierazten du. Eskaintzen dituen aukerak balioak maximizatu edo eta minimizatzea eta helburu gelaxkan lortu behar den balio zehatza adieraztea dira, ‘Solver’ ahalik eta gehien hurbiltzen saiatuko delarik.
- *Gelaxka aldakorrak*: ezarritako helburua bete ahal izateko beraien balioa aldatu beharko duten gelaxken erreferentzia adierazten du.
- *Murrizketak*: helburua kalkulatzeko aintzat hartu behar diren baldintza guztiak adierazten dituzte Murrizketak beti aurreko aukeratan aipaturiko



2. Modulua: Datuen Tratamendua Kalkulu Orrietan

4. gaia: Analisisilako tresnak: helburua bilatu, agertokiak, Solver

gelaxkekin erlazionatuak egon behar dute, hau da, bai helburu gelaxkaren balioarekin edo eta bai azken emaitzaren kalkulerako derrigorrezkoa den formularen bat jasotzen duen gelaxkaren baten balioarekin.

Behin parametro guztiak zehaztu direnean, 'Solver'-ek arazoa ebatziko du eta eta ezarririko helburua optimizatzen duen emaitza erakutsiko du, adieraziriko murrizketa guztiak betez.

Lanabes hau ez dago eskuragarrik Microsoft Excel-ek besterik ezean erakusten dituen aukeren artean eta beharrezkoa de aurrez ezartzea. Informazio gehiago eskuratu daiteke on line laguntzan:

[Solver](#)